

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

**Ebazpena: R3/2017**

**Espedientea: 6/2012**

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 6a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari ERAKUNDEAREN (IFZ: -----) egoitza fiskala zehazteko planteatutako eskumen-gatazkari buruz, eta 06/2012 espediente-zenbakiarekin Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetzen dena, Javier Muguruza Arrese jauna txostengile dela.

## **I.- AURREKARIAK**

1. Gatazka hori Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) aurkeztu zuen, 2012ko otsailaren 3ko idazkiaren bidez. Hori 2012ko otsailaren 7an erregistratu zen Batzorde honetan, eta 2016ko ekainaren 20an onartu zen izapidetzea.

Arbitraje Batzordeko buruak sinatutako 2016ko ekainaren 22ko ofizioaren bidez Zerga Administrazioko Estatu Agentziari (ZAEA) jakinarazi zitzaion EAEko Ordezkaritza Bereziaren helbidean (Federico Moyua plaza 3, Bilbo) gatazka aurkeztu izana, eta, ofizio horrekin batera, hura aurkezteko idazkia zein horrekin BFAk aurkeztutako agiriak ere helarazi zitzaizkion.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Aipatutako ofizioa EAeko ZAEaren Ordezkaritzan 2016ko ekainaren 27an jaso zuten.

ZAEak ez du alegaziorik aurkeztu.

2.- Espedientea BFAk gatazka planteatzeko idazkiarekin batera bidalitako dokumentazioak osatzen zuen bakarrik. Agiri horiek BFAk berak egindako txostenak eta ofizioak ziren, inolako oinarri dokumentalik gabe.

Txosten horien arabera, inguruabar hauek aipatu behar dira ERAKUNDEaren zerga-egoitzarekin lotuta:

a) Sozietatea Bilbon eratu zen 1999ko urriaren 6an, NOTARIOaren aurrean, eta Bizkaian ezarri zuen bere egoitza soziala, 1. HELBIDEAn.

b) Sozietatea administrazio-kontseilu batek zuzentzen zuen. Hauek ziren kontseilu horretako kideak, sozietatea eratu zenean: 1. BATZARKIDEA, helbidea Getxon (Bizkaia) duena; 2. BATZARKIDEA, helbidea Madrilen duena; 3. BATZARKIDEA, helbidea Madrilen duena; 4. BATZARKIDEA, helbidea Madrilen duena; eta 5. BATZARKIDEA, helbidea Madrilen duena.

Gerora administrazio-kontseiluko kide izan dira 6. BATZARKIDEA, helbidea Madrilen duena; 7. BATZARKIDEA, helbidea Getxon (Bizkaia) duena; eta 1. FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA, helbidea Madrilen duena.

c) Erakundearen helburu soziala balore higigarriak eta beste finantza-aktibo batzuk erosi, eduki, erabili, kudeatu eta besterentzea da, beste sozietateetan partaidetza maioritaria, ekonomikoa edo politikoa izan gabe.

d) Sozietateak ez du alta emanda Bizkaiko lurralde historikoko ekonomia-jardueren gaineko zergan.

e) Bizkaiko Foru Ogasuneko ikuskapen-zerbitzuak errekerimendu bat bidali zuen erakundearen zerga-helbidera. 1. FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEko langile den 6. BATZARKIDEAk erantzun zuen, Madrilgo harremanetarako telefono-zenbaki bat emanaz.

f) Idatziz jaso denez, dokumentazioa entregatzeko eginbidea helbidea Bizkaian duen 1. BATZARKIDEAk sinatu zuen erakundearen izenean, baina esaten da

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

eginbide hori osatzeko aktuarioak egin zituen jarduera guztiak helbidea Madrilen duen 6. BATZARKIDEArekin gauzatu zituela.

g) Erakundearen zerga-egoitzaren egoitzan ez dago inolako zantzurik sozietatea helbide horrekin lotzen duenik (plakak, postontzia, ataria).

h) BFaren aktuarioaren txostenean adierazten denez, 6. BATZARKIDEAK jakinarazi zion ERAKUNDEaren administrazioaz eta kudeaketaz 1. FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA arduratzen dela. Adierazten da, era berean, datu hori jasota dagoela erakundea eratzeko eskrituran, nahiz eta data hartan enpresa horren izena 2. FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA izan.

i) Erakundearen kontabilitatea 1. FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEAK egiten du Madrilen.

j) BFaren aktuarioaren txostenean adierazten denez, 6. BATZARKIDEAK jakinarazi zion erakundeak ez duela fakturarik jaulkitzen; faktura egoitza sozialean jasotzen dira eta bertatik Madrilerara bidaltzen dira, 1. FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA erakunde administratzaile eta kudeatzailearen helbidera: era berean, sozietateak ez du langilerik ez ibilgeturik.

k) Erakundeak bankuko kontu bat du irekita 1. BANKU-ERAKUNDEAn, Madrilen.

3. 2006ko martxoaren 2ko data duen lehen txostena oinarri harturik, BFAK ERAKUNDEaren zerga-helbide ofizioz aldatzeko proposamena egin zuen 2006ko martxoaren 8an, eta ZAEARI bidali zion 2006ko martxoaren 16an.

ZAEAK ez zion proposamen horri erantzun.

ZAEAREN erantzunik jaso gabe, BFAK dio txostena ZAEARI birbidali ziola 2011ko maiatzaren 25ean, hau da, hasierako proposamena igorri eta bost urte beranduago, eta ez dago jasota bitartean erakundearen zerga-helbidearekin lotutako inolako jarduketarik egin zenik. Espedientean ez da jaso txostena berriz bidali izanaren agiririk.

Erakundearen zerga-helbideari buruzko bigarren bidalketa horretan ere ZAEAREN erantzunik jaso ez zuenez, BFAK beste txosten bat idatzi zuen 2011ko irailaren 29an, eta 2011ko urriaren 14an helbidea aldatzeko beste proposamen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

bat bidali zion ZAEARI, Kontzertu Ekonomikoaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusitakoaren ondoretarako.

Proposamen hori 2011ko azaroaren 11n jaso zuen ZAEAK.

Oraingo honetan ere ZAEAK erantzun ez zuenez, 2012ko urtarrilaren 12an beste txosten bat bidali ostean, BFAK gatazka hau aurkeztu zuen 2012ko otsailaren 3an.

3.- BFAK Arbitraje Batzorde honi eskatu dio adieraz dezala ERAKUNDEAREN zerga-helbidea Madrilan egon dela 1999ko urriaren 6an eratu zenetik.

Uzi horren aurka, ZAEAK ez du alegaziorik aurkeztu espedientean, eta ez da arbitraje-prozeduran agertu.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honetan planteatutako auzia da zehaztea non dagoen kokatuta ERAKUNDEAREN zerga-helbidea.

Gai hori ebazteko, Ekonomia Itunaren 43. Lau, b) artikulua aplikatu behar da. Artikulu horrek honako hau xedatzen du:

«Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta sozietateen gaineko zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute sozietate-egoitza eta sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada (...).»

2.- Hona Arbitraje Batzorde honek askotan errepikatu duen doktrina, Auzitegi Gorenak ere berretsia: «persona juridikoen zerga-egoitza zehazteko garaian, berdin dio non dagoen bere sozietatearen helbidea. Aitzitik, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusiaren kokapena da hori erabakitzen duen irizpidea. Dena dela, egoitza zehaztea ez da eginkizun

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

erraza; izan ere, alde batetik, aginduzko erregelek sekulako garrantzia dute zerga-egoitza zehazteko, zerga batzuk eta besteak aplikatze aldera; beste alde batetik, ordea, Ekonomia Itunean negozioen benetako administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza zentralizaturik dauden lekua identifikatzeko, ez da arau bat ere zehazten. Horren ondorioz, «zerga-helbidearen kokapena (...) frogatu egin beharko da, baldintza horiek toki jakin batean gertatzen direla egiaztatuta». Hala diote, besteak beste, ebazpen hauek: R4/2009, 2009ko martxoaren 6koa (5/2008 espedientea) -Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 8ko epaiak 191/2009 errekurtsioan berretsia-; R2/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (02/2010 espedientea); R3/2013, urtarrilaren 25ekoa (03/2010 espedientea); R4/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (04/2010 espedientea); R5/2013, 2013ko otsailaren 22koa (05/2010 espedientea); R6/2013, 2013ko otsailaren 22koa (06/2010 espedientea); R8/2015, 2015eko ekainaren 19koa (33/2014 espedientea); eta R12/2015, 2015eko ekainaren 19koa (30/2014 espedientea).

Aurreko ebazpenetan azpimarratu da “negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza” nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabea dela, eta hori zehazteko kasuaren baldintza guztiak aintzat hartu behar direla (besteak beste, honako ebazpen hauek: 2012ko martxoaren 30eko R3/2012, 31/2008 espedientea; 2012ko maiatzaren 11ko R7/2012, 36/2008 espedientea; 2012ko abenduaren 27ko R18/2012, 19/2010 espedientea; 2013ko uztailaren 24ko R14/2013, 31/2010 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko Epaiak berretsia, 417/2013 errekurtsio-zenbakia–; 2014ko urriaren 13ko R4/2014, 2/2011 espedientea; 2014ko abenduaren 19ko R7/2014, 32/2010 espedientea; 2015eko ekainaren 19ko R8/2015, 33/2014 espedientea; 2015eko ekainaren 19ko R12/2015, 30/2014 espedientea eta 2016ko maiatzaren 4ko R8/2016, 97/2011 espedientea). Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du: «Negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza zentralizatzea adierazpen konplexua da (...), eta kasuan-kasuan osatu behar da. Egoera bakoitzeko baldintza objektiboen arabera osatzeaz gain, funtsean kasuan kasuko sozietatearen arabera osatu behar da, bereziki, haren jardura aintzat

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

hartuta» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 errekurso-zenbakia, laugarren oinarria; 2014ko otsailaren 21eko Epaia, 505/2012 errekurso-zenbakia, laugarren oinarria; eta 2015eko ekainaren 18ko Epaia, 417/2013 eta 471/2013 errekurso-zenbakiak, bosgarren oinarria).

Bada, ERAKUNDEAren benetako kudeaketa eta zuzendaritza gauzatu ziren lekuari buruz BFAk eta ZAEAk duten desadostasun hori ebazteko (Ekonomia Itunaren 43.Sei artikulua eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 3.c) artikulua), espedientean azaltzen diren datuak eta elementu frogagarriak aztertu behar dira, eta kasuaren gorabehera guztiak elkarrekin kontuan hartu eta balioetsi behar dira, erakundeak gauzatzen duen jardueraren funtsezko ekintza aintzat hartuta.

**3.-** Alabaina, kasu honetan espedientea aztertuta, ERAKUNDEaren zerga-helbidea zehazteko froga bakarrak BFAren tributuen ikuskapen-zerbitzuak egindako txostenak dira (2006ko martxoaren 2koa, 2011ko irailaren 29koa eta 2012ko urtarrilaren 12koa), eta horiek, gainera, errepikakorrak dira funtsean. Txosten horiekin ez da euskarri dokumentalik aurkeztu, Batzorde honek berauetan jasotakoa egiazkoa dela egiazta dezan.

Adierazgarria da ZAEAk ez dituela BFAk adierazitako zantzu horiek zalantzan jarri, hala bada: ez die erantzun horietan oinarrituta BFAk helbidea aldatzeko egindako bi proposamenei, eta ez du gatazka honetan alegaziorik aurkeztu, aipatutako txostena oinarri hartzen duen gatazka jartzeko idazkia, baita horrekin batera BFAk erantsitako agiriak ere, behar bezala helarazi arren.

ZAEA jarduketetan ez agertzea eta BFAren uziari alegaziorik ez aurkeztea prozedurarekiko nolabaiteko auzi-ihesa da, eta ez dago jasota Kontzertuan, ezta Batzordearen funtzionamenduari buruzko erregelamenduan ere; halere, horrek berez ez dakar BFAren uzia automatikoki onartzea, antzeko aurrekari batean defendatu dugun bezala (24/2015 ebazpena, 2015eko abenduaren 28koa).

Baina ZAEA espedientean agertu ez izanari gehitu behar zaio, gainera, gatazka planteatu dela BFAk ez duelako ZAEAREN erantzunik jaso helbide

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Bizkaitik Madrilera aldatzeko proposamenaren gainean; horrenbestez, Batzorde honek ez du inola ere ezagutzen ERAKUNDEAREN helbideari dagokionez ZAEAREN uzia zein den, ez eta helbide hori lurralde erkidean finkatzearen kontra egoteko zertan oinarritzen den ere.

Kontrara, aipatu behar da era berean BFAK, 2006an erakundearen zerga-helbidea zuzentzeko espedientea abiarazi arren, ZAEAK bere ekimenarekin bat egiten ez zuela ikusita, ez zuela ezer egin, eta ez ziola inolako jarduketari ekin bost urte baino gehiago igaro arte, 2011ra arte.

Era berean, adierazgarria da ere 2011n zerga-helbidea aldatzeko espedientea hasterakoan BFAK argumentu edo froga berririk ez aurkeztea, 2006ko lehen txostenean jasotakoekin alderatuta, eta irizpen hartan bildutakoa errepikatu besterik ez egitea. Gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkezterakoan ere, ez zuen dokumenturik edo frogarik ekarri, bere baieztapenez edo bere agente edo funtzionarioek egindakoez gain.

Deskribatutako testuinguru horretan eta prozedurako alderdien posizionamenduen ondoriozko muga horiekin ebatzi behar du Arbitraje Batzordeak gatazka hau.

4. ERAKUNDEAREN jarduerari dagokionez, badirudi SICAV (Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietatea) batek gauzatzen duen jarduera dela. Hortaz, gaur egun azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituzten Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako bat da. Erakunde horiek lehen abenduaren 26ko 46/1984 Lege indargabetuak arautzen zituen.

35/2003 Legearen 1. artikulua hau dio: «Jendearen funtsak, ondasunak edo eskubideak atzematea helburu duten erakundeak dira Inbertsio Kolektiboko Erakundeak, funts, ondasun edo eskubide horiek kudeatzeko edota haiek ondasunetan, eskubideetan, baloreetan eta bestelako tresnetan (finantzarioetan edo ez-finantzarioetan) inbertitzeko, betiere inbertitzailearen etekina emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada», eta zehazten du «inbertsio-sozietatearen edo inbertsio-funtsaren itxura izango dutela».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Erakunde horien jarduera berezia denez, 35/2003 Legeak aurreikusten du, lehenago 46/1984 Legeak aurreikusi zuen bezala, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek agindu diezaioketela Sozietate Kudeatzaile bati erakundearen kudeaketaz arduratzeko. Eta, horregatik, lege horren 40. artikuluan ezartzen da zer diren Inbertsio Kolektiboko Erakundeen sozietate kudeatzaileak eta zer eginkizun bete behar dituzten sozietate horiek, honako honetan oinarrituta:

«40. artikulua. Jardueraren eta izendapenaren kontzeptua, helburu soziala eta erreserba.

1. IKESKak sozietate anonimoak dira. Haien sozietate-xedeak dira inbertsio-funtsen eta inbertsio-sozietateen inbertsioak kudeatzea, arriskuak kontrolatu eta kudeatzea, harpidetza eta itzulketak administratu, ordezkatu eta kudeatzea.

Gainera, sozietate kudeatzaileak honako jarduera hauek egiteko baimendu ahal izango dira:

a) Inbertsio-zorroen zuhurtziako eta banakako kudeaketa, barnean direla pentsio-funtsei dagozkienak, inbertsiogileek edo legez baimendutako pertsona batek emandako aginduaren arabera, baldin eta zorro horien barruan Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako tresna bat edo batzuk badaude.

b) Arrisku-kapitaleko erakundeak, Inbertsio Kolektibo Itxiko Erakundeak, Europako Kapital Arriskuko Funtsak (EKAF) eta Europako Gizarte Ekintzailetzako Funtsak (EGEF) administratu, ordezkatu, kudeatu eta merkaturatzea, Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektibo itxiko bestelako erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio kolektiboko erakundeena– aldatzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Legean ezarrita dagoen bezala.

2. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatuta dagoena gorabehera, sozietate kudeatzaileak honako jarduera osagarri hauek ere egiteko baimendu ahal izango dira: (...)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

a) Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako tresna bateko edo batzuetako inbertsioei buruzko aholkularitza.

b) Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta, bidezkoa bada, EKAFen eta EGEFen inbertsio-sozietateen akzioak zaindu eta administratzea.

c) Bezeroen aginduak jaso eta transmititzea, finantza-tresna bati edo batzuei buruz (...)

5. Sozietate kudeatzaileek hirugarren erakundeen esku utz dezakete, osorik edo partzialki, arauz ezartzen diren baldintzen arabera kudeatutako IKEen ondareak osatzen dituzten aktiboen kudeaketa. Sozietateak hainbat eginkizun hirugarrenen esku uzteak ezin izango du kudeaketa-sozietatearen erantzukizunean eragin (...).

11. Sozietate kudeatzaileek partizipazioei buruzko eta, orokorrean, sozietate horiek balore-merkatuan gauzatzen dituzten erakundeei buruzko erregistroak eta dokumentuak eraman eta mantendu beharko dituzte. »

Hortaz, SICAV batean ezinbestekoa da kudeaketa sozietatearen ondaretik, hots, sozietatearen aktiboetatik bereiztea; egoera horren baliokidea izango litzateke ohiko sozietate baten produkzioaren kudeaketa teknikoa, negozioen benetako zuzendaritzaren kudeaketa teknikoa, aurrekoa ere sozietate kudeatzaile bati agintzen zaionean, kasu honetan bezala, erakundea ez dago behartuta lokala eta langileak edukitzera; horregatik, egoitza fiskala erakundearen administratzaileek eta gobernu-organoek zuzendaritza-eginkizunak gauzatzen dituen lekuan egongo da.

Horren ondorioz, SICAV baten jardura berezia denez, sozietatearen aktiboen kudeaketa sozietate kudeatzaile bati agintzen bazaio, beste inguruabar batzuetan erakunde baten benetako zuzendaritzaren egoitza kokatzeko garrantzitsutzat hartzen diren elementuek, hala nola notario-eskriturak eman diren lekuak, banku-kontuak irekita dauden lekuak edo sozietatearen hornitzaile nagusiak kokatuta dauden lekuak, ez dute horrenbesteko pisurik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

ERAKUNDEAren kasuan, jasota daude Bizkaiko lurralde historikoarekiko loturak: bertan eratu zen, bertan ezarri zuen egoitza soziala eta bertan bizi dira administrazio-kontseiluko zenbait kide.

Baina, beste ezeren gainetik, nabarmentzekoa da ERAKUNDEAK, hori egiaztatzeko dokumenturik egon ez arren, baina ziurtasun osoz, bestela ez bailitzateke ulertuko BFAk planteatutako gatazka, Bizkaiko Foru Ogasunarekin izan dituela zerga-arloko harremanak. Zehazki, ogasun horren aurrean aurkeztuko zituen sozietateen gaineko zergaren adierazpenak, eta horiek onartu egingo zizkioten, eztabaidarik gabe, gutxienez 1999tik 2006ra arte, zantzu guztien arabera.

Eta, 2006. urtean BFAk erakundearen zerga-helbidea zuzentzeko espedienteari hasiera eman zion arren, deigarria da, BFAren ekimena ZAEAK bultzatu ez zuela ikusita, BFAk beste jardunik ez egitea bost urte igaro arte, hau da, 2011ra arte.

Alegia, epe horretan BFAk helbidea adostasunez aldatzeko prozedura mugarik gabe irekita mantentzeko itxurak egin zituen, Arbitraje Batzordea eratu ondoren gatazka modu formalean bideratzeko modua izan arren eta, gainera, itxura guztien arabera erakundearen autolikidazioak jasotzen jarraitu zuen, horiei uko egiteko inolako asmorik erakutsi gabe.

Egia da ERAKUNDEAK badituela loturak Madrilen. Baina horiek arrazoizkotzat jo daitezke, kontuan izanik bertan duela egoitza aktiboak kudeatzen dituen eta gisa horretako sozietateek inbertsio kolektiboko erakunde baterako egin ohi dituzten funtzioez arduratzen zen sozietate kudeatzailea.

Inguruabar horiek horrela, eta Batzorde honek azaroaren 4ko 18/2016 ebazpenean ezarritako irizpidearen arabera (98/2011 espedientea), ez dira nahikoa arrazoi identifikatu ERAKUNDEAren zerga-helbidearen egitasunaren legezko uzia auzitan jartzeko. Helbide hori ERAKUNDEAK adierazi zuen, eta BFAk ez bairik gabe onartu zuen 1999 eta 2006 artean, eta benetako desadostasunik gabe 2011ra arte, aipatu den bezala, eta ondorioz, BFAren uzia ezetsi behar dugu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2012	R3/2017	2017-02-06	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

- 1.- Adieraztea ERAKUNDEaren (IFZ: -----) zerga-helbidea Bizkaian egon dela eratu zenetik.
- 2.- Jardunak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.
- 3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta ERAKUNDEari jakinaraztea.